

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

3967

EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 3koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskina «Titulazioen eta espezialitateen taula»; agindu horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez (EHAA, 2012-09-11koa) onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko araudia; II. eranskinean, espezialitateen eta irakasgaien zerrenda biltzen da, eta III. eranskinean, irakaskuntza-maila ezberdinetako espezialitateetan ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendetan sartzea ahalbidetzen duten titulazioen taulak.

Agindu horren azken xedapenetako bigarrenaren bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza gaitzen da, behar izanez gero eta dagokion ebazpenaren bidez, ordezkaritza sindikalarekin dagoen negoziazioa egin ondoren, ikasturtean zehar eta bereziki birbaremazio-prozesu bakoitza hasi aurretik, aipatutako taulan jasotako espezialitateen bat emateko gaitasuna emango duten titulazio berriak sar ditzan, edo lehendik daudenak alda ditzan. Horretarako, batzorde batek, Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzako, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzako, Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzako eta Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskatzaile bateko teknikariek osatuta, egin daitezkeen txertaketak, aldaketak eta baliokidetasunak ebaluatuko ditu, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari proposamen egokiak egingo dizkio.

Azaldutakoarekin bat etorritik, ordezkapenetarako hautagaien zerrendetan sarbidea ematen duten titulazio berriak gehitzeko beharra ikusi da, aipatutako Batzordeak titulazioen ikasketa-planak aztertu eta zerrenda horietako espezialitate jakin batzuk emateko egokiak diren aztertu ondoren. Bestalde, Batzorde horren azterketa behar izan ez duten beste titulazio batzuk ere gehitzeko beharra ikusi da, dagoeneko dauden titulazioen beste Hezkuntza plan bateko titulazio baliokideak direlako edo dagoeneko dauden titulazioekin lotuta daudelako.

Halaber, aipatutako Batzordearen azterketaren ondoren, Medikuntzako Lizentziatura, Medikuntzako Gradua, Albaitaritzako Lizentziatura eta Albaitaritzako Gradua birkokatze beharra ikusi da espezialitate hauetako zerrendetara 1. kidetasunarekin sarbidea eman dezaten: Biologia eta Geologia (0255), Curriculum Desberdinak Eratzekoa: Zientzia eta Teknologia (0989) eta Helduen Hezkuntza: Ezaguera Zientifiko Teknologikoaren Esparrua (1585).

Beraz, horretarako eratutako Batzordeak egin beharreko aldaketak ebaluatu eta sindikatuen ordezkariekin negoziatu ostean, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen

duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskinean («Titulazio eta espezialitateen taulak») aldaketa hauek egitea:

- Irakaskuntzako espezialitate jakin batzuk emateko gaitzen duten titulazio berriak gehitzea. Gehitze horiek ebazpen honen I. eranskinean aurreikusten dira.
- Medikuntzako Lizentziatura, Medikuntzako Gradua, Albaitaritzako Lizentziatura eta Albaitaritzako Gradua birkokatzea espezialitate hauetako zerrendetara 1. kidesunarekin sarbidea eman dezaten: Biologia eta Geologia (0255), Curriculum Desberdinak Eratzekoa: Zientzia eta Teknologia (0989) eta Helduen Hezkuntza: Ezaguera Zientifiko Teknologikoaren Esparrua (1585). Birkokatze horiek ebazpen honen II. eranskinean aurreikusten dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Zerrendetan sartzeko eta haietan mantentzeko baldintzak aldatzea.

Ebazpen hau indarrean jartzean irakasleen ordezkogaien zerrendan dauden hautagaiek dagozkien zerrendei eutsiko diete, baita urtero ematen den birbaremazio-prozesuen ondoren eratzen diren etorkizuneko zerrendetan ere, ebazpen honek 2012ko abuztuaren 27ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren Aginduaren III. eranskinean eragiten dituen aldaketak, zerrenda horietan sartzeko baldintzei dagokienez, kontuan hartu gabe.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Irekita mantentzen diren zerrendak.

Ebazpen honetan aurreikusitako aldaketak ez zaizkie aplikatuko «irekita dauden zerrenden» prozeduretako eskabideei ebazpen hau indarrean jarri aurretik aurkeztu badira.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zerrendak birbarematzeko prozesua.

2024-2025 ikasturterako zerrendak birbarematzeko prozesuari aplikatuko zaizkio ebazpen honetan aurreikusten diren aldaketak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen hau 2023ko irailaren 8tik aurrera jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 3a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO.

I. ERANSKINA

BIGARREN HEZKUNTZA

KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

– Filosofia (0132)

b) azpiatala 2. kidesuna

Teologiako Gradua gehituko da.

– Fisika eta Kimika (0202)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira:

Zientzietako Gradua

Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua

– Ekonomia (0205)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira:

Business Data Analytics-eko Gradua

Zuzendaritza Laguntzako Gradua (Management Assistance)

– Matematika (0224)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira:

Business Data Analytics-eko Gradua

Arkitektura Teknikoko Gradua

Eraikuntzako Gradua

Eraikuntzaren Zientzia eta Teknologiako Gradua

Zientzietako Gradua

– Informatika (0237)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira:

Business Data Analytics-eko Gradua
Informazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua

- Biologia eta Geologia (0255)

a) azpiatala 1. kidesasuna

Gehituko dira:

Zientzietako Gradua
Fisioterapiako Gradua
Elikagaien Zientzia eta Teknologiao Gradua

- Curriculum Ezberdinak Eratzekoa: Soziolinguistika (0986)

a) azpiatala 1. kidesasuna

Humanitate Digital Globaletako Gradua gehituko da.

b) azpiatala 2. kidesasuna

Teologiao Gradua gehituko da.

- Curriculum Ezberdinak Eratzekoa: Zientzia eta Teknologia (0989)

a) azpiatala 1. kidesasuna

Gehituko dira:

Zientzietako Gradua
Fisioterapiako Gradua
Arkitektura Teknikoko Gradua
Eraikuntzako Gradua
Eraikuntzaren Zientzia eta Teknologiao Gradua

– Enpresen Administrazioa (1501)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira:

Informazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua

– Elikagaien industriako prozesuak (1503)

a) azpiatala 1. kidesuna

Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua gehituko da.

– Arte Grafikoetako Prozesuak eta Produktuak (1505)

Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua gehituko da.

– Ibilgailuak Mantentzeko Prozesuak eta Antolamendua (1506)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira:

Ingeniaritza Mekanikoko Gradua

Itsasketako Gradua

– Eraikuntza Zibilak eta Etxegintza (1507)

Ingeniaritza Mekanikoko Gradua gehituko da.

– Administrazio–Kudeaketako Prozesuak (1541)

Informazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua gehituko da.

– Merkataritza-Prozesuak (1542)

Informazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua gehituko da.

- Eraikuntza-proiektuen Bulegoa (1547)

Ingeniaritza Mekanikoko Gradua gehituko da.

- Bero eta Fluido Tresneriaren Instalazioa eta Mantentze Lanak (1549)

Ingeniaritza Mekanikoko Gradua gehituko da.

- Instalazio Elektroteknikoak (1550)

Gehituko dira:

Informazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua

- Tresneria Elektronikoa (1551)

Gehituko dira:

Informazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua

- Informatika-Sistemak eta Aplikazioak (1555)

Informazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua gehituko da.

- Helduen Hezkuntza: Ezaguera Zientifiko Teknologikoaren Esparrua (1585)

a) azpiatala 1. kidetasuna

Gehituko dira:

Business Data Analytics-eko Gradua

Zientzietako Gradua

Fisioterapiako Gradua

Arkitektura Teknikoko Gradua

Eraikuntzako Gradua

Eraikuntzaren Zientzia eta Teknologiako Gradua

- Helduen Hezkuntza: Gizarte Ezagueraren Esparrua (1586)

a) azpiatala 1. kidesuna

Humanitate Digital Globaletako Gradua gehituko da.

- Hizkuntza-indargarria (1970)

a) azpiatala 1. kidesuna

Humanitate Digital Globaletako Gradua gehituko da.

b) azpiatala 2. kidesuna

Teologiako Gradua gehituko da.

II. ERANSKINA

BIGARREN HEZKUNTZA

KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK

- Biologia eta Geologia (0255)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira (2. kidesunetik 1. kidesunera pasako dira):

Albaitaritzako Lizentziatura
Albaitaritzako Gradua
Medikuntzako Lizentziatura
Medikuntzako Gradua

- Curriculum Desberdinak Eratzekoa: Zientzia eta Teknologia (0989)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira (2. kidesunetik 1. idetasunera pasako dira):

Albaitaritzako Lizentziatura
Albaitaritzako Gradua
Medikuntzako Lizentziatura
Medikuntzako Gradua

- Helduen Hezkuntza: Ezaguera Zientifiko Teknologikoaren Esparrua (1585)

a) azpiatala 1. kidesuna

Gehituko dira (2. kidesunetik 1. kidesunera pasako dira):

Albaitaritzako Lizentziatura
Albaitaritzako Gradua
Medikuntzako Lizentziatura
Medikuntzako Gradua